



Zuzeneko bost abestiz osaturiko ep honen prentsa orria idazteko proposatu zidaten egunetik argi nuen gauza bakarra hurrengoa zen: zuzeneko disko bat deskribatzeko formarik onena, kontzertu horretan bizitakoa deskribatzea zela. Influentzia, abesti edota gauza teknikoetan sartu gabe.

2007ko Martxoaren 31, Bilboko Kafe Antzokian 500 pertsona inguru bildu dira. Anari osatzen duten musikariak taularitzen dira. Musika tresnak egokitu eta ordu beteko bidai batetan murgiltzeko prest dira. Anari Alberdik begiak ixten ditu, mikrofonora gerturatu eta sentsazioen fabrika martxan jartzen da. Lehenbiziko aldia izan da momentu hori eszenatokiko ixkin batetik bizitzen dudala. Mikel, Drake, Jomes, Borja eta Anari hain gertutik ikusteak urduritzen nau, beraien arteko begirada eta konplizitatearen ikusle naiz izulegoa ez dagoen tokitik, ikusleak ikusi eta sentitu ez ditzakeen gauzei begia kendu ezinik, adi adi.

Bidehutsen ZUZENEKOAK sailaren lehenbiziko pausoa dugu lan hau. Larunbat horretan beraiekin bizitako bidaiaren 5 geltoki esanguratsuenak biltzen dituena: zebra, inon izatekotan, geuk piztutako suak, desertua eta dut taldearen haize eza abestiaren bertsio bat, zein anaritarrek beraiena egiten duten. Bidai guzti honetan zehar, Anari belarrira xuabe abesten dizun bezalaxe, oihu egiten dizu edota lurrean ostiko bat jotzen du, hizki larriz idazten diren izenez osaturiko bandaren laguntzaz, isil isilean herri txiki honetan ezinbestekoak bihurtu diren musikoez inguratirik.

Kontzertu baten sentsazio eta momentu bereziak ondoren zure etxeko logelan disfrutatu edo berpizteko parada izatea ez da berria, zuzeneko disko asko grabatu direlako. Baina Anari bezalako artista batena ez da maiz disfrutatzen.

Argi dago Anari, Anari Alberdi dela, baina kontzertu bukaeran berak esaten duen bezala: "beraiek gabe ez naiz ezer". Eskerrik asko Mikel, Drake, Jomes eta Borja. Anari eta kontzertuetan egoten garen guztion partez. Biba zuek! Eta biba zu Anari.

Eneko Aranzasti

Desde que me propusieron escribir la hoja de prensa este EP compuesto por 5 canciones en directo, lo único que tenía claro era lo siguiente; la mejor forma de describir un disco en directo era hablar sobre lo vivido en ese concierto. Sin entrar a valorar aspectos técnicos ni elección de las canciones.

El 31 de marzo de 2007 en el Kafe Antzokia de Bilbao se juntaron alrededor de 500 personas. Salen a escena los músicos que forman Anari. Preparan los instrumentos y están preparados para iniciar un viaje de aproximadamente una hora. Anari Alberdi se acerca al micrófono cierra los ojos y la máquina de sueños se pone en marcha. Es la primera vez que vivo ese momento a un lado del escenario. Ver a Mikel, Jomes, Drake y Borja tan de cerca me produce cierta excitación, era testigo de su complicidad desde el propio escenario, percibiendo algo que habitualmente se escapa desde el punto de vista del público.

Es la primera referencia de la serie ZUZENEKOAK de Bidehuts compuesta por las cinco estaciones más representativas del viaje de aquel sábado: Zebra, Inon Izatekotan, Desertua, Geuk Piztutako Suak y la versión del grupo dut Haize Eza que convierten en propia. Durante todo este viaje Anari te canta suave al oído tan pronto como te grita y da una patada al suelo, rodeada de unos músicos que en silencio se han convertido prácticamente en imprescindibles en la historia musical de este pequeño país. Poder disfrutar o revivir las sensaciones y momentos vividos en un concierto en tu habitación posteriormente no es nada nuevo pero un directo de Anari no es pan de cada día. Está claro que Anari es Anari Alberdi, pero como dice al finalizar el concierto "sin ellos no soy nada". Gracias Mikel, Drake, Jomes y Borja de parte de Anari y de los que disfrutamos sus conciertos. Y por supuesto a ti también Anari

Eneko Aranzasti

